

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGARI (TMIZ) BURUZKO OHIKO GALDERAK

Noiz eskatzen da TMIZ?

Trafikoko Zuzendaritza Nagusian matrikulatuta dagoen trakzio mekanikodun ibilgailu baten titularra denean ordaindu behar da zerga, bertan baja eman arte.

Noiz ez da eskatzen zerga?

Ibilgailua behin betiko edo aldi baterako bajaran dagoenean urtarrilaren 1ean.

Zer data hartzen da kontuan TMIZren eskakizuna zehazteko?

Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, salbu eta ibilgailua erosi berria bada, orduan zergaldia erosketa egiten denean hasten baita.

Nork ordaindu behar du ibilgailu baten TMIZ?

Trafikoko Zuzendaritza Nagusian urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean zirkulazio-baimena duen pertsonak.

Zenbat aldiz ordaindu behar dut TMIZ?

TMIZ urtero eta urtean behin ordaintzen den zerga da, urtarrilaren 1ean ibilgailuaren titulartasuna mantentzen bada.

Nork eskatzen du zerga?

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den udalerriko Udalak. Baimen horrek Trafikoko Zuzendaritza Nagusian ageri denarekin bat etorri behar du.

Beste udalerrri batean erroldatu naiz, TMIZ kobratuko didazue bietan, beste udalerrri horretan eta Sopelan?

Ez, urtarrilaren 1ean ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den helbideko udalerrian kobratuko da zerga.

Zein balioren gainean ordaintzen da zerga?

Zergaren tarifek hainbat balio hartzen dituzte kontuan ibilgailu motaren arabera.

- Turismoak: Zaldi fiskalak
- Autobusak: Plaza kopurua
- Kamioiak: Karga erabilgarriko kg.
- Traktoreak: Zaldi fiskalak

- Arrastatutako atoiak: Karga erabilgarriaren kg.

- Motozikletak: Zentimetro kubikoak

Zenbat ordaintzen da zerga?

Ibilgailuaren potentzia eta motaren arabera kalkulatzen da zerga-kuota. Tarifak zerga arautzen duen zerga-ordenantza jasotakoak dira.

Noiz ordaindu behar dut TMIZ?

Ordaintzeko borondatezko epea martxoaren 15etik apirilaren 30era bitartekoa izango da, biak barne, edo, egun horiek baliogabeak direnean, hurrengo egun baliodunetan. Hori guztia zerga arautzen duen zerga-ordenantzari jasotzen da.

Beste aukera bat ordainketa helbideratzea da, eta horrek zergaren % 5eko hobaria du. Kasu horretan, urtero kargatuko da ordainagiria, apirilaren lehen hamabostaldian.

Ibilgailu bat erosi dut aurten. Aurten ordaindu behar dut TMIZ?

Zirkulazio-baimenean ibilgailua urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean agertzen den pertsonak ordaindu beharko du TMIZ.

Ibilgailu berria erosten bada, zirkulazio-baimenean ibilgailua bere izenean inskribatzen duen pertsonak ordaindu beharko du TMIZren autolikidazioa urte naturaleko hilabete osoengatik, ibilgailua eskuratu zuen egunetik zenbatzen hasita, erosketaren hilabetea barne.

Urtarrilaren 1aren ondoren bigarren eskuko ibilgailu bat erosten bada, saltzaileak ordaindu beharko du, urtarrilaren 1ean titularra baitzen. Erosleak erosketaren hurrengo urtean ordaindu beharko du zerga.

Eroslearen eta saltzailearen arteko itunek, ordainagiria ibilgailuaren titularra izan den denboraren arabera banatzeko, ez diote eragiten subjektu pasiboaren zehaztapenari; beraz, Udalak urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean zerga ordaintzera behartuta dagoenari eskatuko dio.

Nola ordain ditzaket TMIZren ordainagiriak?

1. aukera. Zergadunak ordainagiria dauka:

Kasu horretan, honako hauetan ordaindu ahal izango duzu: banku-erakunde laguntzaileetan, Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan edo Sopelaren webguneko ordainketa-pasabidearen bidez, betiere ordainagiria aurkeztuta.

2. aukera. Zergadunak ez du ordainagiririk:

Udaletxean eskatu beharko du.

Erreziboa etxera bidaliko al didazue?

Urtean behin ordaindu beharreko zerga denez, Sopelako Udalak ibilgailua erosi eta hurrengo urteari dagozkion likidazioak baino ez ditu jakinarazi behar hartu-agiriarekin. Kasu horretan, ordainagiriak ordaintzera behartuta dagoenaren helbide fiskalera bidaliko dira.

Hurrengo urteetan, likidazioen jakinarazpena ez zaio banaka egingo zergadun bakoitzari, taldeka baizik. Horretarako, iragarki bat argitaratuko da BAO-n, eta bertan zergaren erroldaren onarpena eta zergadunak zerga borondatezko epean ordaintzeko datak adieraziko dira.

Zergadunaren betebeharrak hori errazteko, Sopelako Udalak ordainketa helbideratua aukeratu ez dutenen zerga-helbidera bidaltzen ditu ordainketa-gutunak, atxikitako finantza-erakundeetan zerga ordaintzea ahalbidetzeko.

Jakinarazteko betebeharra BAOko iragarkiaren bidez bete denez, adierazitako ordainketa-gutunak ez jasotzeak ez dakar jakinarazpen-akatsik, eta, beraz, zergadunaren betebeharra izango da dokumentu hori Sopelako Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan eskuratzea, zerga borondatezko epean ordaintzeko.

Zein helbidetan jakinarazten dizkirate likidazioak edo bidaltzen dizkirate ordainketa-gutunak?

Helbide fiskalera bidaltzen dira TMIZren erroldako altari dagozkion likidazioak eta ondorengo ordainketa-gutunak.

Behin betiko baja eman diot nire ibilgailuari Trafiko Zuzendaritza Nagusian. Eskatu ahal dut ordaindu dudana TMIZren urteko kuotaren zati proportzionala itzultzea?

Bai. Alta berriak, behin betiko bajak edo ibilgailua lapurtzearen ondoriozko aldi baterako bajak gertatzen direnean, zergaren zerga-kuota hainbanatu egingo da ibilgailua bide publikoan ibiltzeko gai izan ez den hilabete natural osoen arabera, Trafiko Zuzendaritza Nagusian alta edo baja emateko data kontuan hartuta.

Alta berrien kasuan, Udalak bidaliko du ordainagiria, hainbanatuta.

Baja-kasuetan, interesdunak urteko kuota ordaindu beharko du, eta, ondoren kudeatuko da dagokiona itzultzea.

Behin betiko bajaren ondorioz diru-kopuru bat itzuli behar bada eta hainbat epean ordaindu bada, itzuli beharreko zenbatekoa azken epean ordaindu zela ulertuko da.

Aldi baterako baja eman diot nire ibilgailuari Trafiko Zuzendaritza Nagusian. Eskatu ahal dut ordaindu dudana TMIZren urteko kuotaren zati proportzionala itzultzea?

Ordaindutako TMIZren urteko kuotaren zati proportzionala itzuli beharko da, baldin eta aldi baterako baja ibilgailua lapurtzeagatik gertatu behar da. Baja-kasuetan, interesdunak urteko kuota ordaindu beharko du, eta, ondoren, dagokion itzulketa kudeatuko da. Aldi baterako bajaren ondorioz diru-kopuru bat itzuli behar bada eta hainbat epean ordaindu bada, itzuli beharreko zenbatekoa azken epean ordaindu zela ulertuko da.

Nire ibilgailua saldu dut. Eskatu ahal dut ordaindu dudan TMIZren urteko kuotaren zati proportzionala itzultzea?

Ibilgailua transferituz gero, ez da kuota hainbanatu behar.

Urtarrilaren 1ean titular gisa agertzen denari eskatzen zaio zerga osoa.

Eroslearen eta saltzailearen arteko itunek, ordainagiria ibilgailuaren titularra izan den denboraren arabera banatzeko, ez diote eragiten subjektu pasiboaren zehaztapenari; beraz, Sopelako Udalak zerga eskatuko dio obligazioa duenari urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Nire ibilgailua ia saldu nuen, eta, akatsen bat dela eta, aurtengo ordainagiria berriro ere nire izenean bidali da. Nola konpondu ahal dut?

Partikularren artean ibilgailu bat eskualdatzen denean, erosleak 30 eguneko epea izango du, gehienez ere, kontratua sinatzen denetik, ibilgailuaren titulartasuna aldatzeko. Hala ere, saltzailea bazara, komeni da Trafikon salmenta-jakinazpen bat egitea; izan ere, Trafikon ibilgailuaren titulartasuna aldatzen ez bada, saltzailea izango da TMIZaren ondorioetarako haren titularra.

Izapide horiek behar bezala egin badira, baina ordainagiria oker bidali bada, sarrera-erregistroaren bidez berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu behar da zerga- kitapenaren kontra, eskatutako dokumentazioarekin batera.

Ibilgailua aldatzen badut, berria helbideratu behar dut aurrekoa helbideratuta baneukan?

Bai, izapidea ez baita automatikoki egiten. Kontu-zenbakia aurkeztu beharko duzu, edo, bestela, aurreko ibilgailua zegoen eta Udalak lehendik zeukan kontuan helbideratzeko adierazi.

Nire ibilgailua Sopelan agertzen ez bada, nola alda dezaket helbidea?

Izapide hori Trafiko Zuzendaritza Nagusian egin behar da. Dokumentazioa Udalaren sarrera erregistroaren bidez bidal daiteke, egoitza elektronikoaren bidez edo 060 telefonora deituta. Abenduaren 31 baino lehen bidali beharko da beti, hurrengo ekitaldian zerga udalerrri honetan sor dadin.

TMIZren gaineko hobariak eta salbuespenak automatikoki aplikatzen dira?

Ez, Udalean eskatu beharko dira ezgaitasuna duten pertsonen aldeko salbuespenak edo familia ugariaren edo emisio kutsatzaile gutxiko ibilgailuen hobariak. Hala ere, alta ibilgailua matrikulatu aurretik egiten bada, ez da halakorik eskatu beharko. Kasu horretan, alta eman eta hurrengo urtetik aurrera aplikatuko dira, eta zerga-onuraren modalitate bakoitzak dagokion ordenantzan ezarritako iraupena izango du.